

www.noaia.com

Noaia !!



Maiatzaren 13an Zubietan,
Poxpolo eta Mokolo pailazoak



Andatza Eguna
batzen gaituen festa

Urtinea Lorategia



Iritsi da Udaberria

- ✓ Garaiko landareak zure lorategi eta balkoiaruko
 - ✓ Era guztietako aukerak
- AMAREN EGUNEAN**
opariak egiteko



Sari Esteban Iturbe

TT 943 366 299. Fax: 943 366 004
E-mail: urtinea@urteak.com

ISIDORO ITURRALDE botika

Homeopatia
Maisu-formulak

Bardela berrti, 1. © 943 36 33 95

Lehiaketa



Euskal Herriko plazatan 33 urtez aritu ondoren, milaka emanaldi eskaini eta gero, **Akelarre** taldeak 2005eko urtarrilaren 22an Hernaniko Oialumen eman zuen bere azken kontzertua. Horren testigantza jasotzen duen **CDa + DVDa** zozketatuko dugu maiatzaren 6an.

Zozketan parte hartu nahi baduzu, bidali e-posta bat maiatzaren 6a baino lehen honako helbidera: erredakzioa@noaia.com.

Animo eta zorte on!

Postaz Berraberi 3 Eguzkitzaldea
20170 USURBIL (Gipuzkoa).

Badok Amairu !!

Jon Martin: "Beldurra? Inori ez!"

Jon Martin futbolzalea da, edo hobea esanda, realzale amorratua. 112an egiten du lan eta DYako bolondresa da, baina berak nahiago du "anbulantziero" deitzea.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.
Arraina izan ezik, dena.

2. OHITURA TXARREN BAT.
Alperkeria.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?
Mugikorra, giltzak eta diru-zorroa.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?
Nigan, ni bezalako inor ez dago.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?
Inori ez!

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.
Familia.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...
Lagunik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.
Iruñara joan, bi trago hartu eta Usurbila etortzea.

9. LIBURU BAT.
"La llamada de lo salvaje".

10. FILM BAT.
"Green street", "Football factory" eta "Clockwork orange".

11. LEKU BAT.
Stonehenge, Upton Park edo Anoeta.



12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.
Erreka-txikiko paseoa eta San Esteban.

13. URTARO BAT.
Uda.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehenakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitate@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

PLIS, PLAS, TXALO ETA JOLAS 2006 **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

IGANDEAN, ANDATZA EGUNA **8. OR.**

Iaz bezalaxe, zizurkildarrak ere hurbilduko dira aurtengo Andatza Eguna. Hamaiketako, herri kirolak, jokoak eta erromeria ez dira faltako.



HIRU IKASTARO SANTUENEA ELKARTEAN **10. OR.**

JC PEREZ, MAIATZAREN 12AN SUTEGIN **11. OR.**

EGUZKITZAN GALDEZKA **12. OR.**

LASARTE-USURBIL INSTITUTUAK 25 URTE **13. OR.**

XABIER KAMIO ENOLOGOA **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak
Euskal Herra!

Ika-mika !!

Politikoak eta politika

Aste hau oso esanguratsua izan da Agipuzkoako erraustegien aurkako koordinadorentzat. Asteartean, Donostiako pleno aretoan izan ginen, bertan eztabaidatu behar baitzen, erraustegiaren auzia konpontzeko herri-galdeketa edo erreferenduma egin ala ez. Egia esan, lotsa ere pasa nuen politiko batzuen jarrera ikusita, eta Lazkao Txiki bota zuen bertsoa bururatu zitzaidan; "Politikan ez da ezer politikan".

(...) Hizketarako garaia omen da, baina politiko asko ez da horretaz ohartu. Agian garai berrietarako politiko batzuk aldatu beharra daude, ez baitira gai izango bere egiatik atera eta aldamenekoari entzuteko. Hemen ere birziklatu beharra dago garaira egokitzeko.

Zaborren gaira itzulita, garbi ikusten dena da kudeaketa zeharo blokeatua dagoela. Alde baterik Diputazioa eta Mankomunitateak erraustegia jarri nahi digute guztiaren gaintik. Beste aldetik Donostiako alkatea eta bere alderdia, eta EB alderdia, aurka azaldu dira. Hau ezaz gain, bazen beste alderdi bat, nahiz eta 10.000 donostiarren ordezkari izan, hitza

ere ukatu egin zitzaiona bere ikuspuntua azaltzeko. Herriak berriz ez du onartzen zaborrak kudeatzeko errauste sistema, arrazoi askorengatik. Plataformetan bilduta, lan itzela egin dute zaborrak kudeatzeko beste modu batzuk badaudela erakutsiz, eta hemen egitea posible dela, beste leku askotan aurretik egin baitago. Politikoek berriz ez dute nahi herriari galdeketa egin. Zeren beldur dira?

Ostiralean, berriz, Gipuzkoako Batzar Nagusietan izan ginen, gure lana azaltzeko. Hemen ere gauza bat garbi ikusi genuen. Zaborren auzia konpontzeko borondaterik ez dago. (...) Gure politiko nagusiek gure plana utopikoa dela salatzen dute, nahiz eta hainbat lekutan martxan egon. Baina guk pauso bat gehiago eman nahi dugu. Gure lanean agertzen den zaborra kudeatzeko modua martxan jarri nahi dugu, baino oztopoak bakarrik jartzen dizkigute.

Zaborra biltzeko era da kudeaketa guztiaren kakoa, hau da gaika egiten den ala ez. Gaika biltzen bada tratamendu egokia bilatzea erraza da, baina baldintza hori betetzen ez bada, ez dago tratamendu onik.

Añorgan eta Zubietan martxan jarri nahi genuen "atez ateko" bilketa mota, eta bilketa horretako zati organikoa Zubietan konpostatu. Donostiako CAMA (Comisión Asesora de Medio Ambiente), delakoan oniritzia jaso genuen, baino horixe bakarrik. Ez dago hori aurrera emateko ez presupuestorik, ez borondaterik. Horretarako ere, San Markos Mankomunitateak oztopoak bakarrik jartzen ditu. Nahiz eta zaborregia dagoen egoeran egon, ez dute proiektu piloturik bultzatu nahi, ondo ateratzeko itxaropena baldin badute. Zeren beldur dira? Utopiko batzuk 3-6 hilabete barru, zaborren % 85 etik gora birziklatzea posiblea dela erakustea?

(...) Adi usurbildarrok eta esnatu, bada garaia eta. Datorren larunbatean Zubietan arratsaldeko 17:00etan aurkeztuko dugu gure lana. Maiatzaren 13an, berriz, manifestara iraido bat izango dugu Donostian. Espero dugu bertan ikustea, Usurbilek zeresan handia baitauka gai honetan.

Imanol Azpiroz, Gipuzkoako errauste planten aurkako koordinadora

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Maiatzak 12. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 8.

Azken orduko arazoak medio, ezin izan dugu aste honetako iritzi-emaileen Zutabea argitaratzerik izan. Barka eragozpenak.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

36 euro urte osorako

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Telefonoa: _____
E-posta: _____
Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Plis, Plas, Txalo eta Jolas egiteko garaia

Poxpolo eta Mokolo pailazoe-kin hasiko da aurtengo Plis, Plas, Txalo eta Jolas egitea. Zubietako frontoian izango ditugu maiatzaren 13an, larunbata, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

“Zirkoa” ikuskizuna aurkeztuko dute Poxpolo eta Mokolo pailazoen Zubietan. Hori maiatzaren 13an izango da. Maiatzaren 27an, karaokearen txanda izango da. Santuenean egingo den ekitaldian, gaur egungo eta aspaldiko euskal kantuak abesteko aukera izango da.


Ipuin kontalaria Kalezarren

Ekainaren 3an, Pello Añorga ipuin kontalaria arituko da Kalezarren.

Oiartzungo ikastolan hainbat urte egin ondoren, ipuinak kontatzeari ekin zion 1986an. Ipuinen maleta zahar bezain berria lagun, adin guztietako jendeari begira, batzuetan bakarrik eta besteetan marrazkilariek edota musikariek lagunduta aritu ohi da.

Gaur egun, Euskal Herriko ipuin kontalari ezagunetarikoa da. Ipuin tailerrak eta ipuinari buruzko ikastaro teoriko-praktikoak ere zuzendu ditu. Hainbat libururen egile ere bada Pello Añorga.

Ekainaren 10ean, jolas tailerrak izango dira Aginagan eta ekainaren 15ean Pirritx eta Porrotx pailazoen bisita jaso dugu kaxkoan. Beraz, pailazoekin hasi eta pailazoekin amaituko da NOAUA!k antolatutako ohi duen zikloa.



Aurtengo eskaintza


Maiatzak 13 larunbata
Poxpolo eta Mokolo pailazoak
17:00etan Zubietako frontoian

Maiatzak 27 larunbata
Txatxilipurdi Euskal Karaokea
17:00etan Santuenean



Karaokea

Ekainak 3 larunbata
Pello Añorga, ipuin kontalaria
17:00etan Kalezarren,
Haur Eskolan



Pello Añorga

Ekainak 10 larunbata
“Jolas txokoak”
Kilimiska Animazio Taldea
17:00etan Aginagako frontoian

Ekainak 15 osteguna
Pirritx eta Porrotx
17:00etan herriko frontoian



Pirritx eta Porrotx

Ilkapaindegia eta Solarium-a

Ioli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

Jende asko mendi ibilaldian



Pasa den apirilaren 23an, igandean, Andatza KKEK antolatutako Alkiza-Usubil mendi ibilaldi neurtua burutu zen. Txangoa bost ordu eta erdian bukatzeko moduan pentsatua zegoen. Hala ere zenbaitek askoz ere arinago egin zuen. Mendizaleak gure auzotik pasa zirenerako ordu dezente zeramatzaten oinez eta lan zailenak eginak zituzten. Aurreko urtean bezala, Andatza aldetik zetozen, baina Illunbe aldetik etorri beharrean, oraingoan Galone aldetik etorri ziren. Gero Irabi barreneko bidea hartuko zuten, azkenik Usubila iristeko. Eguraldiarekin berriz nahikoa zorte ona izan zuten parte-hartzaileek, oso ona egin baitzuen, temperatura oso egokia eta ateri. Aurten esan beharra dago lagun ugari animatu dela eta arrakastatsua suertatu dela, Andatza eguna baino egun batzuk lehenago burutzen den ibilaldi egun hau.

Ea datorren igandean, Andatza egunean ere, eguraldia portatzen den. Orduko partaidetza ikusirik ziur nago mendizale ugari igoko dela Andatzara giro jatorra sortuz. Gure auzoko elkartean ohi denez nabarmenduko da.

Bestalde, Torre jauregian etxea eta teiatua berritzen aspalditik ari badira, orain Simonenean ari dira etxe inguruan aldamiok jarri eta ganbara zati bat altxatzen. Gainera beste bi etxe (Iruindegi eta Lekueder) laister bota eta berreraikitzeke asmotan dabilta. Izango dugu mugimendua auzoan! Luzerako dirudien asuntza Erroizpe elkartearena da, hori ere bota eta berria eraiki behar baita.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Hitzen moda



Asko maite ditudan lagunak ez didate ulertzen eta nik haiek ere ez asko estresatuta itzuli direla lanetik esaten didatenean. Hitz honen erabilera okerra egiten dutela iruditzen zait; lanpetua egotearen ordez diotela estresatuta leporatzen diet nik. Haiek ezetz. F1-eko autoak baino lasterrago eta arinago doan gizarte honetan, egia da, lehen aurkitzen ez ziren egoerak edo gaitzak (ez dakit ondo zein izen eman) topatzen ditugula orain, baina nago egoera/gaitza deskribatzeko erabilera okerra egiten duten. Niri estresatutak aspertu egiten nau.

Asperten nau, atsegin ditudan abesti, poema... irakurgai askotan malenkonia kutsua, gizabanakoaren goibela, norberaren barne-muinetan murgildurik daudela agertzeko protagonista kafe eta zigarroaren keaz inguratuta irudikatu beharrak. Protagonista guztiak azalarazten dizkigute beira lausotuaren bestaldeko sofán edo taberna bateko egunkari artean edo elkarriketa baten erdian. Zenbait idazleren sormenak dakarren poza ezin da ospatu.

Baina orain bilerak ere ospatu egiten dira. Jakin gabe zenbat bileratan aztoratzen eta denbora-galtzen den pertsona. Baina orain, hemen dena ospatzen da. Mundutarra: argi dago gizona sorterritik bezala, hitzak moda esparrutik ez direla asko aldentzen, ezta?

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

San Joanen usaia

Agude eta nahiz eta oraindik eguraldiak asko laguntzen ez duen, uste dut denok beste alaitasun bat dugula gorputzean. Uda ere gainean dugu eta hasi al zarete "operación bikini" delakoa egiten? Ohikoa izaten da udaberrian sartzen garenean eta eguraldi hobetuek gerturatzen denean udarako prestatzen hasia eta aurtengoan ere hobereana lehenbailehen hasia izango da, konturatzerako hondartzara joateko unea iritsiko baita.

Gai berdintsuarekin jarraituz, konturatzerako maiatzean sartu gara. Jada zenbait herritan ere festak hasi dira: Zumaian, Lazkaon eta Andoainean, besteak beste. Konturatzerako gure herrikoak ere iritsiko dira eta herrikoak baino lehen auzokoak. Eta, auzoko gazteok pentsatu al duzue duela ale batzuk egin nizuen proposamenen? San Joanak gainean ditugu eta Jai Batzordea ere lanean hasia izango denez, animatu zaitezke gure auzoko jaien antolaketan parte hartzera! Lehen azaldu nuenaren arabera gazte jendearen beharra dago, badira jaiak antolatzen dituzten auzoko gazteen artean nekatuta dabilzanak.

Festaz ari garenez, aipatu beharra daukat aurtengo Sagardo Eguna ere laster dela. NOAUA!ko aurreko alean argitaratu zenaren arabera, Sagardo Egunaren aurkezpena egin zen lehengo hilean eta bertan zioenaren arabera aurtengoan ere egun bikaina izango da usurbildarrentzat. Beraz, bertan ikusiko dugu elkar! Ondo segi!



ATXEGALDE

M^a JESUS URBIETA

Maiatzaren Lehena

Bilbon, Donostian eta herri ezberdinetan izan dira ekitaldiak eta denek izan dute arrakasta. Lurralde osoan milaka eta milaka langile manifestazioan izan dira han eta hemen. Batzuentzat aldarrikapen eguna eta besteentzat asteburuari egun bat gehitzeko eguna.

Baina ba al dakigu noiztik eta nola datorkigun egun honen ospakizuna? 1886ko apirilean, Chicagoko M.C. lantoki batean enpresaburuak 1.200 langile baja hartzera behartu zituen. Honen aurrean eta sindikatuak deituta zenbait langilek lan uzteari ekin zioten. Enpresaburuak ordea langile hauen ordezkoak aurkitu eta lanean ordezkatuak izan ziren grebaliariak. Maiatzaren Lehenean, ordea, 40.000 langile baino gehiagok greba egitea erabaki zuten eta honen aurrean istiluak eta hildakoak ere izan ziren. Hurrengo egunetan, mitin batean 15.000 pertsona bilduta zeudela, 80 bat polizia agertu eta erasoka hasi ondoren lehergailu batek ezta egin eta polizia zenbait hil ziren. Ondoren tiroketa hasi eta 70 hildako izan ziren. Sindikatuetak buruak atxilotuak izan ziren.. Azken hauei lehergailua jartzea leporatu zituzten nahiz eta behin eta berriz uko egin akusazio haiei. 8 atxilotuetatik lau hil egin zituzten eta bostgarren batek bere buruaz beste egin zuen, azken hirurak lan astunetara kondenatuak izan ziren.

Guzti honen ondorioz, 1919 urtetik aurrera Maiatzaren Lehena langileen nazioarteko eguna internazionala erabaki zuten.



SANTUENEA

AGUSTIN ESNAOLA

Umeak eta parkea



Orain arte umeen parkeen garrantziaz jabetu gabe nengoen. Bizitzak, bere etapak jorratzen dituzun heinean, gauza gehiago erakusten dizkizu.

Gaurko umeak, aurreko garaietan ez bezala, parkeetan jolasteko aukera dute. Gure auzoan parke eder batean jolasteko aukera dute. Umearen irudimena eta garrantzitsuagoa dena zoriona lantzeko aukera du

umeak.

Umeak dauden lekuetan egon behar dira umeak eta ez helduak egoten diren lekuetan. Parkeak egokiak dira umeen artean harremanak egiteko eta ondo pasatzeko.



Gurasoak umeekin parkeetan egoteko aukera dute. Beraiekin jolasten edo beraien artean jolasten badaude, zaintzen egoteko aukera dute. Aukera ederra dela iruditzen zait, eskertu behar dugun aukera. Udalek egiten duten gastua eskertzeko aukera dugu.

Besterik gabe, kexak bakarrik aditzera ez ematea pentsatu dut, eta auzoan dauzkagun gauza ederak aipatzea egokia izango dela iruditu zait.

URDAIAGA

SARA LAZKANO

Musika doinuak



Berriz ere hemen nauzue, magal honetan gertatzen denari buruz zuei berri eman asmoz, eta betiko legez, kontatzeko askorik gabe. Udaberriak bere martxan jarraitzen du, zelai berdeak lorez estaltzen eta auzoa doinu biziz betetzen.

Urte guztian zehar, baina urtaro honetan batik bat, doinu ez akonpasatuak izaten ditugu entzungai; txorien txorrotzioak, haizearen taupada lasaiak zuhaitzetan murgiltzen, kilkerak, eta gain honetako gainontzeko fauna guztia.

Azken asteburuetan, ordea, izan dugu bestelako soinu erritmikoagorik ere, herriko "Batukada" taldekoak plazan izan baititugu,



beren danbor, tinbal, txistu eta abarrek larunbat goizak soinuaz janzen. Hemen ikusi ditugu, entsegu itxuran, dantzan eta barrez, ingurura agertzen diranak ere, musika lagun, bere erritmoan bateratzera behartuz.

AGINAGA

LARRAITZ EIZAGIRRE

Maiatza, festatik festara

Maiatza iritsi zaigu. Festaz beteriko hilabetea izan ohi dugu hau lehenengo egunetik hasita. Igande bat bera ere ez da salbatzen ospatzeko zerbait gabe: batetik, Andatza eguna dela; bestetik, Usurbilgo sagardo eguna. Jaunartzeak ere gainean ditugu eta noski, Usurbilgoa ez izan arren guztiona den Herri Urrats festa Senperen. Batzuk ezin ospatuko dituzte eta beste batzuk berriz aipaturikoak baino gehiago izango dituzte ospatzeko, hala eta guztiz ere, festa giroa nabari denean aldarte hobean ipintzen gara guztiok.

Hala ere konturatu al zarete aipatutako jai hauen funtsa askotan ahaztu egiten zaigula? Jaunartzea kristautasuneari aurrerapauso bat izatetik urrun antzerki batean bihurtu da aspalditik. Herri Urrats berriz, ikastolentzat dirua lortzeko



jai izatetik, herritik urrun mozkortzeko gune. Behintzat edaria bertan erosiz gero gaitz erdi, baina askok hori ere hemendik eramaten dute.

Hala ere, ongi pasa ditza zuela jai hauek aukera duzenok, eta zorionak ama diren guztiei!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Zubietak kanpoko laguntza behar du

Aurrekoan, hor geunden guraso koadrila, eskola txikiko jolastoki txukunean, umeak begi-bistatik kendu gabe, udaberriko eguzki izpi gutxi horietako bat gozaten.

Eta han non azaldu zen gure alkate Imanol, Zubietan egin nahi omen duten kartzelaren kontrako taldearen bilerara joatera animatuz.

Parkean geundenok entzungor egin eta han joan zen Donostiako bilerara, bakar-bakarrik.

Une gogor eta desatsegin hori burutik kendu ezinik, semea amarekin utzi eta han joan nintzen neu ere Donostiako bilerara. Bileraren ondoren serio hitz egin genuen Imanolek eta biok.

25.000 biztanleko herri batetik nator ni eta, han, herrian eragina duen egitasmoko baten kontra 25 lagun elkartzera lortu gero, arrakasta. 25.000tik, 25; milatik bat. Baina Zubietan zenbat da milatik bat? Inortxo ere ez edo, gehienez ere, alkatea.

Kartzela, erraustegia, Real Sociedaden instalazioak, hirigintza egitasmoko erraldoiak, RNko antena, Herri Batzarraren aginpiderik eza. AHTren astakeria gainera etorri ez zaigunengan. Imanolek ezin du, zubietar guztiak inplikaturik ere, horren guztiaren kontra ezer egin. Kanpoko laguntza behar dugu eta hasi beharko gara asmatzen laguntza hori nola lortu.



Andatza ez da Andatza, Irisasi baizik

Guk Andatza bezala ezagutzen dugun mendiaren berezko izena, antzinakoa, Irisasi da. Andatza izena ere aspalditik dator, baina ez da mendi osoaren izena, honen gailur batena baizik. Irisasi mendiak bi gailur ditu: bata, gurutzea dagoeneko eta bestea postontzia aurkitzen denekoa. Gurutzea dagoen mendi-gailurra da Andatza, eta postontziaren gailurra, aldiz, Iria edo Irigain.

Mendi osoaren izena, beraz, Irisasi da. Lehengo zaharrek izen hori erabiltzen zuten, behintzat, eta duela zazpiehun urtetik honako paperetan ere hala ageri da. Irisasi mendiak baliabide garrantzitsuak eskaintzen ditu aspalditik: errota-harri ekoizpena, energia iturria, abereentzako jangaien lorpena eta komunikabidea.

IRISASI IZENAZ

“Lehengo zaharrek izen hori erabiltzen zuten eta duela zazpiehun urteko paperetan ere hala ageri da”

Dagoeneko, XV. mendean Irisasi mendiko harrobiak aipatzen dira Atxega Jaurerriaren jabetzako parte bezala. Halaber, 1406 urtean



HERRI KIROLAK, JOKOAK, HAMAIKETAKO... EGITARAJUA ERAKARBARRIA DA OSO.

Orreagako Monasterioak eta Juan Atxegakoak sinatutako hitzarmenaren harrobiak ustiatzeko baimena jaso zuen azken honek.

XV. mendeko dokumentazioan basoko egurra eta ikatza ekoizteko jardueri buruzko aipamenak ere aurki daitezke. Aktibitate hau oso berandu arte dago dokumentatua. XVII. mendetik aurrera, Usurbilgo ibarrean erai ki ziren ontzioletarako zuhaitz hazitegi antolaketa beharrezkoa izan zen itsasontzien ekoizpenaren gorakadari erantzun ahal izateko. Hazitegi hauen ospea handia izan zen, horrela erakusten digu Itsas Erret Armadako Ontziolen zainketarako arduradunak XIX. mende hasieran idatzitako txos-

ten batean. Txosten honen arabera, Irisasiko basoak zainketa berezia eta lehentasunezko trataera jaso behar zuten, bertako egurra eta enborren kalitatea oso preziatuak zirelako.

Horrez gain, Erdi Aro eta Aro Modernoan Gipuzkoan osatu zen komunikabide sarearen egituraren, Irisasi mendia kostaldea eta goi herrien arteko harremanetarako bizkar hezurra izan zen.

Garrantzitsua izan da gure Andatza, edo Irisasi, hobeto esanda. Eta badu egun bat, jai giroan eta udaberri erdian, bere omenez ospatzen duguna. Eta urte askotan ospatu dezagula.

NEREA KORTA _____

Maiatzak 7, Andatza Eguna

11:00etan, hamaiketako. Salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

12:00etan, herri kirol eta jokoak haurrentzat eta helduentzat.

14:00etan, bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.

Goizean zehar, erromeria, trikitilari eta bertsolariekin.

Antolatzaileak: Andatza Mendizale Elkarte, Ziotza Kirol Elkarte, Zizurkilgo Udala eta Usurbilgo Udala.



Andatza Kultur Kirol Elkartea, Andatza Egunaren antolatzailea

“Argi gorria piztu da”

Andatza Mendizale Elkartek antolatzen du Andatza Eguna. Elkartek, ordea, ez ditu garai onenak bizi. Horregatik, gazte jendeak mendiaren inguruan mugimendua sortzea nahi dute bertako partaideek. Elkarteko kide diren Joxe Mari Ikutza, Andoni Udabe, Patxi Pagola, Imanol Almandoz eta Iñaki Rekondorekin egon gara honetaz guztiaz hitz egiten.

NOAUA! Zein da Andatza Egunaren helburua?

Andatza Kultur Kirol Elkartea. Andatza Eguna azkenean ohitura batean bihurtu da, beti antolatu da eta beti eramanean da aurrera. Agian Zizurkil eta Usurbilgo jendea elkartzeko egingo zen hasieran. Azken finean, herri bakoitzak badauka ikurtzat hartzen duen mendi bat, bere mendi propioa, eta gurea Andatza da.

Mendi elkarte bezala gustatuko litzazuke herritarrek osatutako talde bat izatea, mendian funtzionatzeko gai dena. Azkenaldian sekulako arazoak ditugu jende aldetik, ez zaigu inor animatzen. Gustatuko litzazuke adin guztietako jendeak osatutako talde bat edukitzea, erantzun bat edukitzeko, antolatzen ditugun ekintzak guxtienez aurrera eramateko.

110 bat bazkide gara momentu honetan eta jendeak ez du erantzuten, irteera bakoitzean bost edo sei lagun ateratzen gara elkartekoak. Adibidez, apirileko azken iganderako mendi ibilaldi bat antolatu genuen eta honetan jendeak gehiago erantzun zuen, 60 pertsona bildu ziren. Urtero hor ibiltzen gara, baina jendeak erantzuten duen ekintza bakanetako bat da. Bestela antolatu izan ditugun ekintzetan, hilabete behin edo egiten ditugunetan, jendeak ez du erantzuten.

N. Asko aldatu da Andatza Eguna?

A. K. K. E. Andatza Eguna babarrun-jana eta guzti hasi ginen antolatzen. Jende asko apuntatzen zen, baina buruhausteak ere izaten genituen, gehienek berandu ematen zutelako izena, eta kalkuluak egi-



IDEIAK ETA PROPOSAMENAK JASOTZEKO PREST DIRA ANDATZAKOAK.

terakoan arazoak izaten ziren. Larri ibiltzen ginen. Eguraldi ona egiten bazuen ostiral edo larunbatean, azken momentuan jendea apuntatu egiten zen. Urte askotan antolatu genuen babarrun-jana, dozena erdi bat aldiz bai, behintzat, baina azpiegitura asko behar zuen eta arazo asko ematen zituen. Hala ere, arrakasta bazekanean. Azkeneko urteetan agian beherakada egon da, eguraldi txarra medio, eta azkenean babarrun jana egiteari utzi egin genion. Trikitilari eta bertsolariak ere bazuten arrakasta gehixeago, denean zegoen mugimendu gehiago lehenago. Antolatzeko ere bai. Orain lau katu gaude eta antolatzeko ere arazoak daude.

N. Zizurkilekin batera antolatzen da Andatza Eguna. Nabaritu al da giroan?

A. K. K. E. Egia esan, jokoak eta antzerakoak eramaten dituzte prestatuta eta giroa jartzen saiatzen dira. Suspertze pixka bat egon da horrekin, bai.

Zizurkilgo Udaletxeak zerbait egin nahi zuen Andatza Egunean, beraiek ere parte hartu nahi zuten, usurbildarrek antolatzen zuten beti dena eta. Zizurkildarrak betidanik igotzen dira. Babarrun-janerako ere askotan suertatzen zen gehienak hangoak zirela apuntatzen zirenak. Horrela hasi ginen, zerbait egin nahi zutela eta,

pixka bat elkartu ginen. Guk gurea antolatzen jarraitzen dugu, salda, txorizoa... eta beraiek hartu dute jokoaren ardura.

N. Bukatzeko, ze egoeratan dago Andatza elkarteak?

A. K. K. E. Argi gorria piztuta. Egutegi bat antolatuta dugu. Bi hilabetez behin irteera bat egiten dugu. Baina lehengo urtean antolatutako egutegian Euskal Herriko zazpi mendi altuenak igotzeko plan bat jarri genuen martxan eta oso gaizki atera zen.

Horretaz gain, irteera pila bat gelditu ziren egin gabe eta horrela ezin zela jarraitu ikusi genuen. Aurten erabaki dugu orain arte bezalako egutegia antolatu beharrean, hiru edo lau ekintzei garrantzia eman, horiek antolatu, eta poliki-poliki ikustea jendeak nolako erantzuna ematen duen, zer egiteko gogoia daukan... Jendearen erantzuna ikusiko bage-nu, antolatzen jarraituko genuke. Baina ez dakigu oso ondo nola asmatu. Orain arte egin dugunarekin jendeak ez du ondo erantzuten. Baten batek ideia berriren bat, haize berriren bat ekarri nahi badu, ate guztiak zabalik dauzka.

Hiru ikastaro Santuenea Kultur Elkarte

Haurrentzako masaje ikastaroa
0-9 hilabeteko haurrentzako masaje ikastaroa **maiatzaren 4an** hasiko da, arratsaldeko 17:30ean. Julia Arraiza hezitzaileak eta erizainak eskainiko du ikastaroa. Eraman beharrek: toalla handi bat eta beste bat txikia, olio (begetala, sesamo edo almendrakoa).

Ikastaroaren prezioa: 50 euro. Iraupena: hilabete eta erdi.

Makilaje ikastaroa

Maiatzaren 6an hasiko da arratsaldeko 15:30ean.

Mirari Lopez adituak eskainiko du hilabetez luzatuko den makilaje ikastaroa. Prezioa: 25 euro.

Autoestima ikastaroa

Maiatzaren 8an hasiko da autoestima ikastaroa. Ahalik eta min gutxiena emanaz nola kexatu jakiteko tekniken ikastaroa. Orduetgia: 14:45-16:15. Ikastaroa, doan.

Ikastaro hauen inguruko informazio gehiago honako telefono zenbakietan: 943 37 15 35 / 943 36 50 31. Ikastaroenak Santuenea Kultur Elkarte.



MAIATZAREN 6AN HASIKO DA MAKILAJE IKASTAROA.

Jexux Artzeren omenezko astea hemen da

Maiatzaren 5ean,
"Aupa Etxebeste!"
euskarazko pelikula

Aupa Etxebeste! nabardura beltzak dituen komedia arina da. Protagonista ekonomikoki gutxira etorritako familia dugu. Herrian duen estatusa mantendu nahian, oportetara irten den planta egiten du, gero ezkutuan etxean geratzeko. Euskarazko filmak egitea posible dela frogatu da, eta ondo gauditutako erronka dela gainera.

Sarrera: doan. Gonbidapenak aurretik jaso behar dira, pertsonako gehienez bi. Lizardin eta Mahukan.

MAIATZAK 5 OSTIRALA, 22:00, SUTEGIN



Maiatzaren 6an,
Pier Paul Berzaitz
kantariaren kontzertua

Pier Paul Berzaitz gaur egungo Xiberuko kantu-egile eta kantari esanguratsuenetariko bat da. Ohiko kantagintzan oinarritzen den aparteko kantari honek, musikaren ikuspegi berria eta aurrerakoia erakusten du. "Baratze bat" diskoa orain dela bost urte kaleratu zuen. Usurbila "Lili baten kantorea" disko berria aurkeztera etorriko da.

Sarrera: Aurretik 8 euro eta takilan bertan 10 euro. Sarrerak Lizardin eta Mahukan.

MAIATZAK 6 LARUNBATA, 22:30, SUTEGIN



Maiatzaren 13an,
"Larru haizetara"
antzezlan

Barre-terapeutikoa da, dibertigarria, modernoa, baina batez ere beharrezkoa. Izan ere, euskaldunak oso atzeratuta gaude sexu kontuetan. Londresen neska-mutilek alkondaretan "I love sex" daramate. Parisen "Je suis un machine sexuel". Sevillan "Nasio pa ligar" eta Cadizen "Nasio pa bacilar". Azpeitian, aldiz, "Nazio... eztabaidagunea".

Sarrera: Aurretik 8 euro eta takilan bertan 10 euro. Sarrerak Lizardin eta Mahukan.

MAIATZAK 13 LARUNBATA, 22:30, SUTEGIN



Maiatzaren 12an disko berriena aurkeztuko du JC Perezek Sutegin

Eskenatokietatik urrun egon da Juan Carlos Perez azken bost urteotan. Baina berriz ere errepidean da. Maiatzaren 12an Sutegiko auditorioan izango da Itoiz taldeko kantari izan zena. Zuzenean grabatutako diskoa aurkeztu du gure artean, "Hiriko istorioak" izeneko lana. Argitaratugabeak, Itoiz garaikoak eta bakarlari garaiko kantuak egokitu ditu zuzeneko lan honetan.

Kontzertu bat zuzenean grabatzea zen hasierako ideia. Baina ez zen hain erraza musikari guztiak elkartu eta entseguak egitea. Azkenean, jendaurrekoa alde batera utzi eta estudioan errejistratu du disko berria.

JC PEREZ KANTARIA

"Soul, jazz, blues
soinuekin sentitzen naiz
erosoen"

JC Perezek lehengo astean aurkeztu zuen diskoa Bilbon. Estudioan zuzeneko grabatzeko formula honekin eroso sentitu dela aitortu zuen: "Niri asko gustatzen zaidan formula da, zuzenean baina estudioan egitea. Kontzertu batean bezala jotzea da, baina entzulegorik gabe. Gauzak errazten ditu, errepika dezakezulako. Guretzat aproposa zen, oraindik entseguak egin gabe geundelako..."

Formula bat da, estilo bat esango nuke, sonoritate mota bat. Ez dauka zuzeneko kutsu hori agian, baina nik nahikoa neukan kantuen bertsioa zuzeneko izatearekin, musikalki erresoluzio hori edukitzearekin".

Zuzenean grabatu ditu kantuak. Horrek kantuak formula horretara egokitzea eskatu die JC Perez eta bere musikariei: "oinarrian, aurretik neukan errepertorioa da, baina berriz jantzita, beste estetika batekin. Hala, kantek beste kutsu bat hartu dute. Batasuna taldeak ematen dio".

Itoiz garaiko kantu bat

Bakarka argitaratu duen seigarren lana da hau. Aurreko lanetako kantuak egokitzeaz gain, Itoiz garaiko kantu bat ere jaso da lan berrian: 'Astelehen urdin batean' izeneko. JC Perezen esanetan, "bonus track modura dago, baina ez dauka zerikusirik diskoarekin. Diskoa beste bide batetik doa, pop-jazz bidetik".

Ia gitarrak ez da diskoan. Badu bere arrazoia. JC Perezen ustez, "orain, gero eta gehiago, pianoa da nire instrumentua. Pianoak bide zabalagoa ireki dit, konposizio alorrean, bai eta interpretatzeko unean ere. Disko honetan 'Atlantic River'ekin hartu nuen bidetik abiatzen naiz berriz. Horrek esan nahi du hor nagoela erosoan: soul, jazz, blues soinuekin".

Diskoan mantendu duen kantu-ordena da Sutegiko emanaldian eskainiko duena.



BAKARKA ARGITARATU DUEN
SEIGARREN DISKOA AURKEZTUKO
DU SUTEGIN.

Sarrerak jada salgai

Noiz: maiatzak 12 larunbata.

Non: Sutegiko auditorioan.

Ordua: 22:30.

Sarrerak: alde aurretik, 8 euro
Oiardo kiroldegian. Egunean bertan takilan, 10 euro.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

LABE-GOXO

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

**GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

 **milorri**
lokalitatea ekologikoa

mantenimendua, diseinua
eta aholkularitza

Bonda berr, 10 - Usurbil
☎ 660 154 114/699 152 282
milorri@usurbil.com

Eguzkitzan galdezka

Urte hasieran iritsi ziren langileak eta garabiak Eguzkitza auzora. Ordutik, hankaz gora dago auzoa. Hala ere, gogorrena pasa da. Okerrik ez bada, Santixabeletarako amaituta egongo dira lanak. Auzoko komertzioetara jo dugu iritzi eske. Deserosoak badira ere, azkenean obrak onerako izango direla espero dute.

1.- Obrak eraginik izan al du zure negozioan eta eguneroko martxan?

2.- Lanak onerako izango al dira?

Patxi Arruti
Antxeta jatetxea

1.- Ez da eroso, baina normala da. Beti izaten dira deserosoak obrak.

2.- Onerako, espero dugu. Kalte handia zegoen lehen hemen, hodiekin arazo handiak izaten ziren, udan batez ere.

David Martin Blazquez
BBVA

1.- Egia esan, oporrak izan dira tar-tean eta ez da jenderik egon, baina ez dut uste eragin handirik izan duenik.

2.- Epe luzean hobekuntza guztiak dira onak.

Tomas Iturralde
Iturralde farmazia

1.- Pixka bat nabaritzen da. Kanpotik datozenek ez dute aparkatzeko tokirik izaten. Noizbait izan dugu farmaziako sarrerarekin arazoren bat, izan ere, zailtasunak dituztenek ere farmaziara iritsi behar dute.

2.- Onerako izango da, hilabete batzuk pasa beharko dira, baina onerako izango da. Beti egoten da arazo txoren bat baina enkargatuekin nahikoa harreman ona dugu.

Angel Errasti
Angel Altzariak

1.- Bai, asko nabaritzen da. Eguneroko martxan ere bai, burrunba, zarata... Ez da eroso, jendea etortzeko gogoia joan egiten zaio. 18:30etik aurrera etortzeko esan behar izaten diegu bezeroei, bestela ez da ezer entzuten eta!

2.- Hala izatea espero dugu. Baina hori gero ikusiko da, ez daukat esperantza gehiegi.

Ines Kamino
NI ileapaindegia

1.- Negozioan ez, ez dut uste. Etorri behar dena berdin-berdin etortzen da. Eguneroko martxan zikintasunean nabaritzen da, hauts asko dago, baina hori normala da.

2.- Onerako izango da ziur aski hodian kontuan, baina bestela ez dakit. Ez dakit nola geratuko den azkenean, plana erakusten dizute baina ez dago jakiterik gero zer egingo duten. Hori bai, udaltzainak etor daitzela, hemen autoek nahi duten lekuan aparkatzen baitute, obra barruan sartuta. Hesiren bat edo jarri beharko lukete.



EGUZKITZA AUZOKO BERRITZE-LANAK
AZKEN TXANPAN SARTU DIRA.

Maixux Iribar
Latxa janari-denda

1.- Ez dut uste eragina izan duenik, baina obrak ez dute establezimendua kontuan hartzen. Arazoak izan ditut sarrerarekin, hondakin piloa egin dituzte eta dendaren aurrean utzi. Beraiekin hitz egin dut eta pasadizo bat ireki didate, baina ez dute denda kontuan hartu.

2.- Bai, onerako izatea espero dugu.

NEREA KORTA _____

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400
pintxoak
ogitartekoak
plateak konbinatuak
TABERNA

Zendoia
Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

25 urte bete ditu Lasarte-Usurbil institutuak

Mende laurdena bete du Lasarte-Usurbil institutuak eta hori ospatzeko zenbait ekitaldi antolatu dituzte. Maiatzaren 2an erakusketa bat zabaldu zuten. Maiatzaren 6an irakasleek eta irakasle ohiek egingo duten bazkariarekin amaituko dira urteurren ospakizunak.

Maiatzaren 5a bitartean, artelan batzuen erakusketa izango da institutuan bertan, 17:30etik 19:30era. Lanen egileak institutuko ikasle ohiak dira, margolari eta eskultoreak: Miguel Angel Adán, Gotzon Huegun, Uxue Larrañaga, Javier Rojo eta Nekane Zaldua.

Maiatzaren 5ean, ikasleen jaia

Horrez gain, ostiral honetan, maiatzaren 5ean, hainbat kultur eta kirol ekintzen bidez osatutako festa egingo da institutuko ikasleentzat. Eta azkenik, larunbatean, maiatzaren 6an, irakasleen eguna izango da. Lehenik, gonbidatuei ongietorria



USURBILDAR ASKO PASA DIRA
LASARTE-USURBILGO INSTITUTUTIK.

egin eta erakusketa bisitatuko da. 13:00ean, bertso eta musika ekitaldia eta 13:30ean, luntxa. Bukatzeko, 14:30ean oraingo eta aurretik irakasle izandakoen arteko bazkaria egingo da.

NEREA KORTA _____

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketa

Maiatzaren 9an amaituko da Felix Aizpurua Literatura Lehiaketara aurkezteko epea. Idazlanaz gain, eta lanari grapatuta, lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaiotako urtea, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila adierazi beharko dira. Lan bakoitzak egile bakarra izango du eta DBHko ikasleek lana ordenadoren idatzia aurkeztuko dute.

Sari ugari

Olerkiaren neurria libreza izango da, baina prosazko lanek neurri jakinak izan behar dituzte: A taldekoek 1 edo 2 orrialde, B taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 5 orrialde, C taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 6 orrialde, eta D taldekoek gutxienez 3 eta gehienez 8 orrialde. Maila bakoitzean nagusitzen diren hiru lanek saria izango dute. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 9an amaituko da.

Epaimahaikide izango dira: Luis Aranalde, Xabier Pikabea, Juan Luis Zabala eta Ibon Beristain.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

ZUBIAURRENEA 4, LISUREIL

943361951

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

ANTXETA
taberna-jatetxea

agitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

JOSUE
ARANZAZISTROKI
**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

Maiatzaren 12an Mahaspildegia elkartean sagardo dastatze afaria

Sagardo Eguna XXV. edizioa ospatuko du aurten. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Sagardo Egunaren Lagunak taldeak. Maiatzaren 12an, sagardozaletzek dastatze afari batean parte hartzeko aukera izango dute. Izena emateko epea irekita dago eta Xabier Kamio enologoa izango da dastatze afaria gidatuko duena.

NOAUA! Nolakoak izan ohi dira sagardo dastatze afariak?

Xabier Kamio. Askotan egiten dira dastatze afariak ardoarekin. Sagardoarekin ez da hainbeste egiten baina posible da ardoarekin bezalaxe, sagardoarekin ere dastatze afaria egitea. Euskal Herrian betidanik egin den produktua da sagardoa. Kultur produktua ere badela esango nuke, antzinatek edaten baita sagardoa.

Askok ikasi duten bezala egin dute sagardoa eta hori dute gustuko, baina gustukoa izateak ez du esan nahi horrek sagardo ona izan behar duenik. Guk produktua aztertzen dugu. Gure helburua da produktuari buruz dakiguna irakastea. Zuk edaten duzun produktu hori gero eta gehiago ezagutzen baduzu, gehiago gozatuko duzu. Hor dago enologoaren lana. Gure interesekoa da produktua ondo mantentzea, etorkizunean ere ondo mantentzea eta kontsumoa areagotzea.

XABIER KAMIO

“Sagardo ezberdinak dastatuko ditugu: sagardo suabea, gorputz handikoa, antzineko moduan eginikoa...”

N. Lehen baino hobea izango da orain egiten den sagardoa, ezta?

X. K. Nik uste dut lehen baino sagardo hobea egiten dela orain. Eta garrantzitsuena, hobea egiten da eta erraz edateko modukoa. Produktua erraz edaten denean errepikatu egiten da.

Ohiturak jarraitu behar dira, hemen-

goa delako sagardoa, gure produktu nazionala delako. Hori defendatu behar dugu hemen eta kanpoan. Baina teknikak aldatu egin behar ditugu. Ohiturarekin jarraitu behar dugu baina teknikak modernizatu egin behar ditugu. Horregatik, etorkizun handia du sagardoak. Garagardoak izan duen bezala. Lehengaiak aztertuta, sagarra gehiago gustatzen zaio jendeari eta gorputzarentzat sagarra hobea da. Eta nire galdera da: zergatik jende askok ez du sagardoa edaten? Sagardoak bihotzerrea ematen diolako; sagarrak bihotzerrea ematen ez duenean. Kasu horretan, akaso prozesuan kale egiten ari gara. Hori da aldatu behar dena.

N. Sagardogileak gero eta gehiago kezkatzen dira produktuaz. Honen ondorioz, gero eta gehiago jotzen al da enologoarengana?

X. K. Gaur egun, sagardozaletzek batek badaki bere sagarra ondo zaindu behar duela eta dauden teknikak aplikatzen joan behar duela. Bidaiatu egin behar dute, merkatuan zer dagoen ikusi, zein tresna erabiltzen diren gaur egun... Zentzu horretan, sagardogile famatuek enologoa dute.

N. 2006 honetan, sagardo txarra edatea tokatu al zaizu?

X. K. Bai, asko. Gaur egun, badira gaitoxotasuna duten sagardoak. Eta bada sagardo mota hori gustukoa duen jendea ere. Jaso duen heziketarekin, ez du usain txar hori produktu txar batekin identifikatuko. Betidanik horretara ohitu bazara, akaso gustatuko zaizu. Baina gure mezua argia da: nahiz eta sagardo hori zure gustuko izan, sagardo hori txarra izan daiteke. Gero norberak erabakiko du zer edan, baina jendeak jakin dezala zein den sagardo ona eta zein ez.

N. Maiatzaren 12ko dastatze afaria nolako izango da?

X. K. Sagardo ezberdinak dastatuko ditugu. Etiketa gabeko sagardoak izango dira, publizitaterik ez egiteko. Jendeari erakutsiko diogu mingaineko zein toki-



XABIER KAMIO ENOLOGOAK
GIDATUKO DU DASTATZE AFARIA.

tan neurtzen den parametro bakoitza: gozotasuna, mikaztasuna, garratzasuna... Jendeak ikus dezan mingainean non neurtzen den gauza bakoitza. Sagardo ezberdinak dastatuko ditugu: sagardo suabea, gorputz handikoa sagardoa, antzineko sagardoa...

IMANOL UBEDA

Sagardo dastatze afaria

NOIZ: maiatzak 12 ostirala, 19:30ean.

NON: Mahaspildegia elkartean.

PREZIOA: 21 euro.

IZEN-EMATEA: 661 122 568

(17:00etatik aurrera).

Sagardo Egunaren Lagunak taldearen eskutik.

Maiatzaren 13an, sagardo botatzaile tailerra

Sagardo Egunean botatzaile bezala jardun nahi duten guztientzat ikastaroa antolatu du Sagardo Egunaren Lagunak taldeak. Hau irakatsiko da: betebeharrak, ariketa praktikoak, hobetze teknikak.

NOIZ: Maiatzaren 13an, larunbata.

NON: Sutegin, 16:30-19:30.

IZEN-EMATEA: Bertan azaldu eta kitto!

Abian da "Usurbil Cup 2006" txapelketa

Hirugarren urtez jarraian, herriko haur eta gazteek pilotalekuan futboleko jokatzeko aukera izango dute Santixabelak bitartean. Izan ere, Usurbil Futbol Taldeak "Usurbil Cup 2006" areto futbol txapelketa antolatu du aurten ere eta maila desberdinetako taldeak osatu eta izena emateko aukera izango dute herriko neska-mutilek maiatzaren 7a bitartean.

Orain helduak direnetatik askok frontoian futbol txapelketa jokatzeko aukera izan zuten garai batean, eta ohitura hori berreskuratu zuen Usurbil Futbol Taldeak duela bi urte. Maiatzaren erdi aldetik ekaina bitartean ostiral eta larunbatetan giro ederra sortu izan da txapelketa honen inguruan. Haurrak futboleko, senitartekoak eta lagunak begira... arrakastatsua bihurtu da ikuskizun hau eta aurten ere "Usurbil Cup" txapelketako partidak izango dira frontoian.

Partehartzea ere azpimarratzekoa izan da azken bi urteetan. Lehenengo ekitaldian 20 taldek eman zuten izena, eta iaz, berriz, talde bat gehiago izan zuten txapelketak. Urte bakoitzean 160 neska-mutil izan dira futboleko aritu direnak pilotalekuan, eta galdu ala irabazi gustura ibiltzen direla ikusita, antolatzaileek aurten ere txapelketarekin aurrera egitea erabaki dute.

Lau maila zehaztu dituzte antolatzaiz-



MAILA EZBERDINETAKO FINALAK SANTIXABELETAN JOKATUKO DIRA.

leek txapelketa honetan: benjaminak (1996-1997), alebinak (1994-1995), infantilak (1992-1993) eta kadeteak (1990-1991). Neskek, ordea, bi maila izango dituzte: benjaminak eta alebinak (1994-1995-1996-1997) eta infantilak eta kadeteak (1990-91-92-93). Hala ere, talde mixtoak egin daitezkeela azpimarratu nahi dute antolatzaileek.

Horrez gain, baldintza batzuk bete beharko dira. Talde bakoitza gutxienez 7 eta gehienez 8 jokalariz osatua izango da, maila bakoitzean gutxienez 5 talde osatu beharko dira txapelketa hasteko eta talde bakoitzak 16 urtetik gorako ordezkaritrenatzaile bana izan beharko du.

Maiatzaren 7a izango da izen emateko

azken eguna eta talde bakoitzak jokalaritren bakoitzaren eta entrenatzaile-ordezkaritren NAN fotokopiak edo jaitzte-agiriak eta taldearen izena utzi beharko ditu Oiardo kiroldegiko harreran. Horrez gain, txapelketako gastuei aurre egiteko talde bakoitzak 40 euro jarri beharko ditu.

Partidak herriko pilotalekuan jokatu dira ostiral arratsalde eta larunbat goizetan. Hala ere, finalak ekainaren azken igandean izango direla kontuan hartuta, astegunean ere jokatu beharko dira neurketa batzuk.

JOSU ARANBERRI

Aitziber Aranberri atezainaren agurra

Usurbil Futbol Taldeko emakumezkoen taldeak denboraldiko azken neurketa jokatu zuen pasa den larunbatean. Partida amaieran, duela 10 urte taldea sortu zenetik ia partida guztiak jokatu dituen Aitziber Aranberri atezainari omenaldi txiki bat egin zioten lagunak. Azken urteetan taldeko kapitaina izan denak bere azken partida jokatu zuen eta urte hauetan egindakoa eskertu nahi izan zioten lagunak eta taldekideek.



Aholkua !!

Beltzarantzeko produktuak

Duela hogeita hamar urte azaldu ziren merkaturan, arrakasta handirik gabe. Egun, formula berriei esker, dezente hobetu dira.

Nola koloreztatzen du beltzarantzeko produktuak?

- Formula horiek daukaten DHA molekulek (dihidroxiazetona) epidermisa ukitzean oxidazio erreazio kimikoa abiarazten da.
- Beltzarantzeko produktuen babesa eguzki kremek daukatena baino ahulagoa denez, hobe da azken horietako kremaren bat baliatzea eguzkitan luzaro egoteko.

Nola aplikatu beltzarantzeko produktuak?

- Uniformeki eta orban arrastorik gabe beltzarantzeko, produktua aplikatu aurretik larruzala esfoliatu egin behar da.
- Beltzarantzeko produktuari etekin onena ateratzeko unea dutxatik irtetean da, orduan baitago larruzala leunen eta garbien.
- Aplikatu produktua larruzala ondo lehortuta. Gorputz osoan ematekoa baduzu, hasi oinetatik.
- Ez baliatu beltzarantzeko produktua besaurre, esku ahur eta oin zoletan. Hanketan aplikatu ondoren egon zaitez tartetxo bat, eseri gabe. Aurpegiari emate-



an, ez aplikatu begi ertz, bekain eta ile ertzean. Baselina zabalduta babes ditzakezu alderdi horiek.
- Eskugainak beltzarantzeko zabaldu produktua gaina gainarekin igurtziz, hatzak bereizi gabe.

Eguneko goardiako farmaziak. Table listing pharmacy addresses and hours for various locations like Maiatzak 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14.

Zubieta-Donostia TST autobusak. Table listing bus routes and schedules for ASSEGUNETAN, LARUNBATETAN, and other times.

Autobus ordutegia Donostia-Zarautz. Table showing bus departure times between Donostia, Urbil, Usurbil, and Zarautz.

Autobus ordutegia Zarautz-Donostia. Table showing bus departure times between Zarautz, Urbil, Usurbil, and Donostia.

EuskoTren ordutegia. Table showing train departure times between Donostia, Usurbil, Zarautz, and Donostia.

Agenda !!

Maiatzak 1/ maiatzak 21

- Sagardo Egunaren XXV urteak. Erakusketa Sutegin.

Maiatzak 5, ostirala

-Haur danborradan izen-ematea, 17:15ean Agerialden.
-Aupa Etxebeste! Filma Sutegin, 22:00etan.

Maiatzak 6, larunbata

- Pier Paul Berzaitz kantaria Sutegin. 22:30ean.

Maiatzak 7, igandea

- Andatza Eguna, egun osoz.

Maiatzak 10, asteazkena

- Santixabeletako Jai Batzordearen bilera udaletxean, 19:30ean.

Maiatzak 12, ostirala

-Xabier Kamioekin sagardo dastatze afaria Mahaspildegina. 19:30ean.
-JC Perez kantaria Sutegin. 22:30ean.

Maiatzak 13, larunbata

-Sagardo botatzaile tailerra Sutegin, 16:30-19:30.
-Poxpolo eta Mokolo Zubietan. 17:00.
-"Larru haizetara" 22:30ean Sutegin.

Maiatzak 14, igandea

San Ixidro. Goizean azoka, haurrentzako ekitaldiak eta herri-kirolak.

Maiatzak 15, astelehena

- San Ixidro Nekazarien Eguna. Meza, hamaiketakoa eta bazkaria.

Egin kontu !!

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du Udarregi ikastolak

Udarregi ikastolak Herri Urrats festara joateko autobusa antolatu du. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da udaletxe aurretik eta 19:00etan bueltatuko da. Prezioa 8 euro. Izen-ematea, Udarregi ikastolan bertan, maiatzaren 12a arte (eguerdirarte).

Zirkuituaren inguruan, ostatuak jateko eta edateko, animazioak eta lasai egoteko tokiak izango dira.



MAIATZAREN 14AN OSPATUKO DA AURTENGO HERRI URRATS.

Omenaldi beroa jaso zuen Joxe Domingo Aizpuruak

Lagun asko bildu ziren Joxe Domingo Aizpuruari eskaini zitzaion omenaldian. Apirilaren 29an Donibane Garazin egin zen ekitaldian, lore-sorta, txapela eta lagunen berotasuna jaso zituen usurbildar preso oihak.

Frantziako Nanterreko espetxean zen baina gaixotasun larri bat medio, aske utzi zuten duela aste batzuk. Jada tratamendua jasotzen hasia da.



USURBILDAR ASKO BILDU ZIREN OMENALDIAN.

Herri Arteko Pilota Txapelketari bikain ekin dio Usurbilgo taldeak

Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketako lehenengo kanporaketako joaneko partidak jokatu ziren larunbatean eta Usurbil izan zen garaile. Final zortzirenetara sailkatzeko urrats handia eman dute gure ordezkariak. Kadeteetan, Esnaolartarrak 22-18 emaitzarekin nagusitu ziren. Jubeniletan, Irastorza- Zinkunegi bikotea izan zen jaun eta jabe

22-8 irabazi eta gero. Nagusietan, Huizi-Arruti bikoteak erraz gainditu zuen Zumarragako bikotea. Emaitza, 22-5 usurbildarren alde.

Asteburu honetan, Zumarragako Beloki pilotalekuan jokatu beharko dituzte kanporaketako itzuliko neurketak. Aurrera egiten duen taldeak Zegamaren aurka jokatuko du final zortzirenetako norgehiagoka.



ITZULIKO PARTIDAK MAIATZAREN 6AN, 18.00ETAN, ZUMARRAGAKO BELOKI UDAL PILOTALEKUAN.

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile (bungalow) alokatzen da. Hondartza gertu. Guztiz jantzita, bi logela dauzka, terraza eta jardina. Aste buruak eta uda. Ekonomikoa. 685 721 652 edo 665 734 009.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde: 943373185.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintze-

- ko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabilta .645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Euskadiko selekzioko txandalaren jertsea galdu zait, frontoi inguruan. Aurkitu duenak deitu 943 366 845.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. Interesatuak deitu 661972670 telefonora.
- Urrezko pultsara bat galdu zait Artzabalgo frontoi inguruan. Aurkitzen duenak NOAUA!ra eraman dezala. Eskupekoa emango da.
- Andoaingo Zine eta Bideo Eskolak 7 laburmetraia egiteko aktoreak behar ditu euskaraz zein erdaraz. 667886414 (Miren).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapore@euskalnet.net
- Tebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginatete jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Zubietatik Andatarako bidean hiru giltza topatu ditugu. Galdu dituenak jakin dezala udaltzaingoa utzi ditugula.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukalde. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !!

Maiatzaren 13an eta 18an urteak beteko dituzten bi baserri-tar txiki hauei zorionak eta muxu handi bana. **Zorionak Iñaki eta Mikel** amaxoren partez.



Zorionak Nerea! Maiatzaren 2an hiru urte egin zenituen. Zorionak eta muxu asko guraso, aiton amona, izeba osaba, Julen eta Koldo eta denen partetik.



Zorionak Elixabete! Maiatzaren 11n zure urtebetetzea denez zorionik beroenak etxeko denen partetik.



Zorionak Kebin! Maiatzaren 4an egingo dituzu 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partez.



Oharrak

Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea, maiatzaren 12an. Zorion-agurrak maiatzaren 8a baino lehen ekarri edo bidali.

E-mail: erredakzioa@noaua.com

Posta helbidea:
NOAUA! astekaria
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

BITXI
Tailerra
urte eta zilar
lanak
943 422 349

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal) 943 36 09 80

maiatzaren

11tik aurrera

berria berria = berria²

KAZETA eredu Berria

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

GUREAN ULERTUKO DUZU

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Lehen zikloa

- Mekanika Industri Inguruntza Teknikoa
- Industria Diseinua Injeriarlan Teknikoa
- Industri Elektronik Injeriantza Teknikoa
- Sistemen Informatika Injeriarlan Teknikoa
- Kudeaketa Informatika Injeriarlan Teknikoa
- Telekomunikazio Sistemen Injeriarlan Teknikoa
- Telematik Injeriantza Teknikoa

bigarren zikloa

- Industri Injeriantza
- Industria Arloko Injeriantza Injeriantza
- Automatika eta Industri Elektronik Injeriantza
- Informatika Injeriantza
- Telematik Injeriantza

Arrasate

Ikasmaila

- 1, 2, eta 3
- 1, 2, eta 3
- 1, 2, eta 3
- 1, 2, eta 3
- 1, 2, eta 3
- 1, 2, eta 3

- 4 eta 5
- 1 eta 2
- 1 eta 2
- 1 eta 5
- 4 eta 5

Goierri

Ikasmaila

- 1, 2, eta 3
- 1
- 1
- 1
- 1
- 1

-
-
-
-
-

ate irekiak:

- ARRASATE: MAIATZAK 25, 2. ZIKLOA
- BIKAINAK 10, Biteri ikasteko Nagusia
- GUIERRI: MAIATZAK 11

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Lehen zikloa

- Zuzendaritza
- Enpresa Zientzien Diplomatura, ibilbideak:
 - Nazioarteko Merkataritza
 - Enpresa Injeriantza

ziklo luzea

- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Injeriantza, Ibilbideak:
 - Finantza Zuzendaritza
 - Merkataritza Zuzendaritza
 - Enpresen Kudeaketa

bigarren zikloa

- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Injeriantza, Ibilbideak:
 - Finantza Zuzendaritza
 - Merkataritza Zuzendaritza
 - Enpresen Kudeaketa
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Injeriantza, Ibilbideak:
 - Enpresa Proiektuen Kudeaketa

Oñati

Ikasmaila

- 1, 2, eta 3
- 1, 2, 3, 4 eta 5
- 3, 4, eta 5

Bidasoa

Ikasmaila

- 1, 2, eta 3

- 1 eta 2

ate irekiak:

- ONATI: MAIATZAK 25
- BIDASOA: MAIATZAK 18
- MAIATZAK 24, 2. ZIKLOA

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza Espezialitatea
- Irakaslea, Hezkuntza Berria Espezialitatea
- Irakaslea, Azterketa Hezkuntza Espezialitatea
- Irakaslea, Heziketa Hizketa Espezialitatea
- Irakaslea, Entzumen eta Mintzaira Espezialitatea (1. diplomatura orokor)
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza Espezialitatea (2. diplomatura orokor)

ziklo luzea

- Bizi-Entzumeneko Komunikazioaren Lizenziatura

bigarren zikloa

- Plikopedagogia Lizenziatura, Ibilbideak:
 - Hezkuntzen Plikopedagogia: On line eta ibilki berrantolaketa
 - Foku Heziketa Plikopedagogia: On line eta ibilki berrantolaketa
- Oso Zientzien Lizenziatura, Ibilbideak:
 - Oso zientzien enpresan aplikatuta
 - Oso zientzien informazio eta komunikazioan aplikatuta

Eskoriatza

ate irekiak:

- MAIATZAK 18

inskripzio epea
zabalik